

Triodos Bank-en pertsona fisiko eta juridikoentzako Kontratu Orokorrentzako aplikagarria den eranskina eta, bereziki, begizta daitezkeen kontu korronteei, aurrezki kontuei eta kontu korronteen zorpeko- eta kreditu-txartelei.

1. HELBURUA

1.1. Eranskin honen helburua azaroaren 13-ko 16/2009 Legea, Ordainketa Zerbitzuei dagokiena (aurrerantzean LSP) indarrean sartu aurretik Bezeroak Triodos Bank NV S.E.-ekin (Triodos Bank) izenpetuta dituzten kontratu desberdinak lege honetara egokitzea da, eta Legean definitzen diren eta Bezeroari aplikagarriak zaizkion ordainketa zerbitzuei aplikatu daitezkeen erregimen juridikoa ezarriko da.

1.2. Eranskin honek espresuki arautzen ez duen kasuetan LSP eta garapen araudia aplikatuko da zuzenean, Bezeroak aurrez izenpeturiko kontratuekiko lehenatasunezko izaerarekin.

1.3. Eranskin honetan jasotzen den ordainketa zerbitzuen arauketa berezi honek lehenatasuna izango du Kontratu Orokorren edo bankuen produktuetan haueri buruz egiten den beste edozein erreferentziaren aurrean.

2. KONTUAREN IDENTIFIKAZIO BAKARRA

2.1. Ordainketa agindu bat modu egokian burutzeko, Bezeroak kontuaren identifikazio bakarra eman beharko du. Hau Kontu Korrontearen Kodea (CCC) edo Bankuko Kontuaren Nazioarteko Zenbakia (IBAN) izango da, egin nahi de ordainketa eragiketaren arabera.

2.2. Bezeroan eragiketari aplikagarria zaion zuzeneko identifikazio bakarra ematen duenean, Triodos Bank izango da hau modu egokian burutzearen arduraduna. Bestela izanez gero, hau da, Bezeroak zuzeneko identifikazio bakarra ematen ez badu, Triodos Bank ez da izango ordainketa agindua ez burutzearen edo hau modu desegoki batean burutu izanaren arduraduna.

3. ORDAINKETA AGINDUA

3.1. Ordainketa agindua baimendutzat hartuko dira Bezeroak bere baietza idatziz edo kontsumitzaileei bideratutako finantzaketa zerbitzuen distantziako merkataritzari buruzko uztailaren 11-ko 22/2007 Legeak jasotzen duen beste edozein modutan, baliabide telematikoa erabiliz konkretuki, eman eta komunikatu duenean, beti ere bere kontratu nagusiak agindu hauek igortzea baimentzen duenean.

3.2. Agindua burutzeko eta exekuzio epea kalkulatzeko helburuarekin, aginduaren onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileari dagokionez, agindua jasotzeko unea laneguna izanez gero, Triodos Bank-ek agindua jasotzen duen eguna izango da edo, lan eguna ez bada, hau jaso ondorengo lehenengo lan eguna. Hala ere, ordainketa agindua hamazazpi orduak (17:00) baino beranduago jasotzen bada, hurrengo lan egunean jasotzat hartuko da.

3.3. Bezeroak ordainketa agindu bat burutzeko emandako baietza atzera bota ahal izango du edozein momentutan, beti ere hau exekutatu izan aurretik, LSP-ak ezarritako epe eta baldintzak kontutan izanik. Agindua atzera botatzeak komisio eta gastuak sortuko ditu. Hauek, kasu bakoitzean, aplikagarriak diren Kontratuetan edo Triodos Bank-en tarifen Liburuxkan jasotzen direnak izango dira.

3.4. Triodos Bank-ek arrazoitutako arrazoiaren batengatik, honen segurtasunari buruz zalantzak izateagatik edo honen erabilpen iruzurti bat egiteagatik ordainketa baliabide edo tresna baten erabilpena blokeatzeko eskubidea izango du.

4. BAIMENDUTAKO ERAGIKETAK BURUTZEKO EPEA

4.1. Transferentzia bidez egindako ordainketetan, ordainketa eragiketa bakoitzari dagokion zenbatekoa onuradunaren esku egongo da Triodos Bank-ek ordainketa agindua jaso duen dataren hurrengo lan egunaren amaieran.

4.2. Hala eta guztiz ere, aurreko atalean jasotakoa kontuan izan gabe, 2012-ko urtarrilaren 1-erarte, komunitate barneko eragiketen kasuan, alderdiek ordainketa agindua 3 lan egun iragan baino lehenago jasotzat har daitekeela adostu ahaliko dute eta, Espainian sortu eta jaso diren eragiketen kasuan, epe honek ezingo ditu 2 lan egun gainditu.

4.3. Aurreko ataletan adierazitako epeak egun bat gehiagoz luzatuko da agindua paperean igortzen bada.

4.4. Bezeroak Triodos Bank-ekin adostu ahaliko du ordainketa agindua data zehatz batean, epe baten amaieran edo kontu korrontean edo ordainketa tresna zehatz batean fondoak dituen momentuan burutzea. Kasu honetan aginduaren jasotze data adostutakoa izango da, eta hurrengoa hau lan eguna izango ez balitz.

5. ORDAINKETA AGINDUAK ONURADUNAREN EKIMENEZ

5.1. Bezeroak Triodos Bank-i eskatu ahaliko dio onuradun batek edo bere bitartez baimendutako eta hasitako eta dagoeneko burutuak izan diren eragiketen itzulketa gehienez ere zortzi (8) astetako epe batean, hauek bere kontu korronteko fondoetatik kobratuak izan diren egunetik kontatzen hasiko direlarik, baimenak zenbateko zehatza adierazten ez duenean eta gainera kobratu den zenbatekoak bere ohizko gastuak kontutan izanik zentzuz espero dena gainditzen duenean.

5.2. Hala ere Bezeroak ez du itzulketarako eskubiderik izango berak edo onuradunak Triodos Bank-i honi buruzko informazioa transmititu badio aurreikusitako ordainketa epea baino lau aste lehenago.

5.3. Itzulketaren erreklamazioaren kasuan, Triodos Bank-ek hamar (10) lan eguneko epea izango du ordainketa eragiketaren zenbateko osoa itzultzeko itzulketa eskakizuna jaso duen unetik, edo honen ukapena arrazoitu beharko du. Kasu honetan Bezeroak dituen erreklamazio judizial eta estrajudizialaren prozedurak azaldu beharko ditu.

6. BURUTU GABEKO EDO MODU DESEGOKI BATEAN BURUTUTAKO ERAGIKETAK

6.1. Bezeroak ezagutza eduki bezain laster komunikatu beharko dio Triodos Bank-i baimendu gabeko ordainketa eragiketa bat burutu dela edo eragiketa bat modu desegokian burutu dela eta, edozein kasutan, LSP-an jasotako ustekoetan 13 hilabeteko gehienezko epe batean (kontsumitzaileen kasuan) edo 6 hilabete Legearen arabera kontsumitzaile baldintza ez dutenen kasuan.

6.2. Triodos Bank-ek Bezeroaren agindu bat ez burutzeko ahalmena erreserbatzen du, dela agindu-emaile bezala, dela onuradun bezala, honen exekuzioa Legearen edo Kontratuaren kontra joan badaiteke.

7. KOMISIO ETA GASTUAK

7.1. Triodos Bank-ek ezingo dio Bezeroari Eranskin honetan jasotako informazioarengatik kobratu.

7.2. LSP-an jasotzen diren Triodos Bank-ek eskainitako produktu eta zerbitzu desberdinen komisio eta gastuak Bezeroak izenpetutako kontratuetan eta ordainketa agindua jasotzen den unean indarrean dagoen erakundearen tarifen liburuxkan arautzen direnak izango dira.

7.3. Bezeroak agindu-emaile bezala jarduten badu edo onuradun bezala jarduten badu, Triodos Bank-i dagokion eragiketa aplikatzeagatik sor daitezkeen eta eragina izan dezaketen gastuak ordaindu beharko dizkio, aplikagarria den kontratuan eta agindu zehatzean adostutakoaren arabera. Helburu honekin, Bezeroa onuraduna den ordainketa agindueta, Triodos Bank-ek gastuak transferitu den zenbatekotik kendu ahal izango ditu.

8. KONTRATUAREN BALDINTZEN ETA INFORMAZIOAREN GARDENTASUNA

8.1. Triodos Bank-ek indarrean dagoen araudiaren eta baldintzen gardentasunaren eta kontsumitzaileak diren bezeroen ordainketa zerbitzuei aplikagarriak zaizkien betekizunei buruzko ekainaren 14-ko EHA/608/2010 Aginduan jasotzen diren betebeharrak betetzea hartzen du bere kontu. Helburu honekin, aplikagarriak diren Kontratu Orokorren eta Produktuaren Kontratuetan bankuko web orrian daude argitaraturik: www.triodos.es.